

IRAKURKETA MINTEGIA

2025-2026. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako liburuak erabiliko dira.
- 2025ean kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketaren bitartekaritzan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2025ean 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura obra guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea Galtzagorriren webgunean zintzilikatzeko.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitx Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegi Nagusian egingo dira saioak: Fermin Kalbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2025	2026	
Irailaren 20a	Urtarrilaren 17a	Apirilaren 18a
Urriaren 18a	Otsailaren 21a	Maiatzaren 16a
Azaroaren 15a	Martxoaren 21a	Ekainaren 6a
Abenduaren 13a		

FORMAZIO SAIO TRINKOA

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain aurten formazio saio berri bat antolatu dugu. **Gazte literatura** izango da prestakuntza saio honen ardatza. Bi atal izango ditu:

Alde batetik, **Miren Billelabeitia** gazte literaturako bitartekaria gonbidatu dugu “Literatura esperientziak gazteekin institutuan” saioa eskaintzeko. Ikastaroaren muina honakoa izango da:

- Eskolan mitoak iraultzen: gazteek ez dutela irakurtzen ez da egia.
- Esperimentazioa abiapuntu: literatura landu irakurketaren bidez.
- Tertulia literario baten antolaketa: aholkuak, pistak, eta abar tertulia arrakastatsu bat egiteko.

Adibide zehatzak:

- Liburu bakoitzarekin egindako lanketa.
- Ondorioak eta lorpenak.

Prestakuntza saioaren bigarren zatian, “Literatura esperientziak gazteekin irakurketa taldeetan” mahai-ingurua izango dugu. Euskal Herriko hainbat liburutegitan gazteen irakurketa taldeak gidatzen ari direnen esperientziak eta bizipenak ezagutuko ditugu. Mahaiaren bueltan izango dira Peru Magdalena, Nerea Loiola eta Eider Perez. Olatz Mitxelena izango da moderatzailea.

Saio monografikoa 2025eko **azaroaren 8an** izango da, 10:00etatik 14:00etara, San Telmo museoko ekitaldi aretoan. Mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik norakoak eta izena emateko eman beharreko urratsak.

